Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

288

2926/2010 EBAZPENA, abenduaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Juan Ignacio Armentia Fructuoso jauna Debagoieneko Ospitaleko zuzendari gerente izendatzen duena.

Aztertu dugu Debagoieneko Ospitaleko zuzendari gerente lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen 2010eko azaroaren 19ko 2487/2010 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2010eko azaroaren 19ko EHAAn (223. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, hizpide dugun lanpostua betetzeko izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu da, eta haien baldintza profesionalak balioetsi dira, Curriculum Vitaean adierazitako merezimenduak aintzat hartuta.

Aurkeztutako agiriak azterturik, Juan Ignacio Armentia Fructuoso jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko dohain egokiak dituela ikusi da.

Horiek guztiak kontuan hartuta, zuzendaritza nagusi honek

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Juan Ignacio Armentia Fructuoso jauna Debagoieneko Ospitaleko zuzendari gerente izendatzea.

Bigarrena.– Interesdunari jakinarazi bezain laster izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak izendapen honek.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 17a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

288

RESOLUCIÓN 2966/2010, de 17 de diciembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a D. Juan Ignacio Armentia Fructuoso para desempeñar el puesto de Director Gerente del Hospital Alto Deba.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Director/a Gerente del Hospital Alto Deba, publicada en el BOPV n.º 223, de 19 de noviembre de 2010, mediante Resolución 2487/2010, de 11 de agosto, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por los aspirantes al desempeño del puesto que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que, a la vista de la documentación presentada, D. Juan Ignacio Armentia Fructuoso se adecúa al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección General,

RESUELVE:

Primero.– Nombrar a D. Juan Ignacio Armentia Fructuoso Director Gerente del Hospital Alto Deba.

Segundo.– El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde su notificación al interesado.

Tercero.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2010.

El Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.